

Egungo arazoez hausnartzeko etorkizuneko liburua

Zilarrak, agintariak, eta karbonikoak, menpekoak, talkan jarri ditu Aitziber Etxeberriak 'Reset' (Erein) eleberrian

JON AGIRRE

DONOSTIA. Arduratzan duten bai gai, «teknologiaren gehiegizko erabilerak sortzen duen kezka eta deskarbonizazioa», oinarri hartuta ondu du Aitziber Etxeberria Garrok (Zarautz, 1973) 'Reset' (Erein) zientzia fikziozko eleberria. Umetan etxean oso irakurzaleak zirela azaldu du –haren anaia dira Martin eta Xabier idazleak– eta generoko liburuak oso gustukoak zituztela, bereziki hektalogia bat. «Segituan irakurtzen genuen eta urtebete itxaron behar genuen». Hala ere, liburu idazterakoan ez zuen lehen unetik zientzia fikzio modura bezala planteatu. «Nola enfokatu izan zen lehen buruhaustea, gai konplikatuak direlako, oso momentukoak, gertukoak. Ez dauka

gu perspektiba handirik». Hain zuzen horixe lortze aldera egin zuen generoaren alde, existitzen ez den gizarte berri bar sortuz «idazterakoan askatasuna» izate aldera.

Mundu berri hori ez dago herrialdetan antolatuta, eremuka baizik. Egutegia ere ezberdina da. Noski, gizarte antolakuntza ere bestelakoa. Alegiaroaren 46. urtean aurkituko da irakurlea, Klastro Zuriak gidatzen duen M eremuan. Gizarte «teknologiko eta arreratuan, ustezko zuzentasanaren distira iluntzen duten itzal uneak han-hemenka» hedatzen ari diren uneak. Pertsonaia nagusiak gutxi jakingo du hasieran, beste hiru presorekin batera espetxetik basamortuan kokatua den lan eremu espezializatu batera eramango dutela. «Ez dakigu zer egin duen ezta zergatik eraman duten», azaldu zuen Uxue Razquin Ereingo editoreak.

Hori bai, dena ez da urre. Esaterako, gizartea klastetan edo estratu sozialetan banatua dagoelako. Batetik, zilarrak, maila ero-



Aitziber Etxeberria, aurkezpenaren aurretik. GORKA ESTRADA

soan bizi eta pribilegioak, lan oneak dituztenak. Noski, hemen dira agintariak. Bestetik, karbonikoak, lan sinpleenak, okerrrenak egiten dituztenak. Menpeko dira gainera, eskubide askoz gutxiago dituztenak. «Gizarte distopiko eta teknologikoki arreratuak aurkeztuko digu, baina izango dira arazoak, agintariak pentsatzen dutelako gizarte hobeago bat lortu dutela, baina badira hutsune batzuk sistema horretan eta jendea konturatuko da». Ildo horretan, disidentzia aire bat nabaritzen joango da irakurlea, baita sistemaren aurkako zenbait ekintza

puntual. Erantzuna ere bada: «sistemak ez du akatsik onartuko», aurreratu zuen idazleak.

Historia «sinesgarri» izatea eta «irakurleak egiturak eta teknologia bere egitea» izan ditu ardura Etxeberriak. Baietz iritzi zuen Razquinak eta idazleak baliatu dituen bi planoak goraiatu ditu, pertsonaia nagusiak lehen pertsonan kontatua batetik; agintarien ikuspegia eta iraultzaren kontra zer egiten duten xehatzen duena bestetik, hau hirugarrenean eta narrazaila orojakilearekin. Etxeberriak azaldu zuenez «istorioa arrotza» zela iritzi zela egin zuen hautua.

El folk y el blues de Early James se escucharán esta tarde en el Andén de Donostia

DV

SAN SEBASTIÁN. El cantautor de Alabama Early James actuará esta tarde en El Andén, a las 19.30, acompañado de su banda oficial, de la mano de Club 44. Nacido en Alabama, Frederick James Mullis, su nombre real, comenzó su carrera artística presentándose en Birmingham, donde fue descubierto por Dan Auerbach como gran cantautor de folk y blues, con raíces en el soul.

Bajo la batuta de Easy Eye Sound, debutó discográficamente en 2019 para comenzar una relación creativa con Auerbach, que continúa con 'Medium raw' (2025), su más reciente álbum. Acostumbrado a buscar entre viejas glorias, especialmente del blues, que no habían triunfado, Auerbach vio en él la mezcla perfecta entre Tom Waits y Townes Van Zandt, entre Hank Williams y Howlin' Wolf. Y no dudó en producir sus dos primeros trabajos.